



Zurekin hobetzen dugu

Moldatu zure poliza gure estaldura berrieekin:

1. Merkataritza Digitala

Zerbitzuak barne hartzen du:

- Gorabehera informatikoak konpontzea.
- Lekuan bertan laguntza informatikoa ematea (urtean 2 zerbitzu gehienez).
- Hodeian datuak konfiguratzea.
- PC eta MAC ordenagailuen lokalizazioa eta blokeoa.
- Backup online-ko zerbitzua (segurtasun-kopiak).
- Datuak berreskuratzea (2 zerbitzu/urteko gehienez).

2. Babes Digitala eta Ziber Arriskuak



Zerbitzuak barne hartzen du:

- Informatika-zaugarritasunen analisia.
- Bahiketen aurkako sistemen instalazioa eta prebentzioa (antiransom).
- Zibersegurtasuna: Aktibo digitalen kalteak:
 - Birusen kontrako programa eta suebakia konfiguratzea.
 - Programen eta segurtasun-adabakien eguneratzea.
 - Segurtasun-kopiak eta Hodeian datuak konfiguratzea.
- Pribatutasunerako eta zibersegurtasunerako aholkularitza.
- DBLOri egokitzeko zerbitzua, DBEBLO DBEOentzat.
- Komunikabideetako erantzukizunagatiko aholkularitza.
- Krisien kudeaketa eta online izen ona mantentzearen kostuak.
 - Hatz-marka digitalaren jarraipena.
 - Informatika forentsearen zerbitzua.
- Estortsio zibernetikoaren aurreko aholkularitza.

Berme horien prestazioa bide hauetatik emango da: **944 94 74 28** telefonoa eta www.seguroslagunaro.soporte.com webgunea.

3. Buxadurak libratzea



Urak eragindako kalteekiko osagarria den estaldura honek buxadurak libratzeko gastuak estaltzen ditu (urak kalterik sortu ez badu ere), aseguratutako lokaleko hoditeria bertikal eta pribatuetan istripuz gertatutako buxaduren ondorioz (hondakin-urak, zikinak edo euri-urak husteko hoditeriak).

- Urtean zerbitzu 1, 300 €-rainokoa.

4. Edukiak balio estetikoak galtzea



Saltokiko altzariek izan dezaketen balio estetikoaren galera estaliko dugu, bai eta mahaiek eta aulkiak ere (adib., ostalaritzan, nekazalturismoetan, oporretako etxeetan, etab.), polizak estalitako ezbeharra izanez gero.

- Aukeratu zenbat aseguratu nahi duzun: 1.500 € edo 3.000 €.



5. Makineria eta ekipamendu elektronikoak lapurtzea eta haustea aseguratutako lokaletik kanpo



Lehen arriskuan eta hautatutako mugarekin estaliko ditugu makineriaren lapurreta/atrakoa eta haustea, jarduera aseguruaren izaera dela-eta aseguratutako lokaletik kanpo mugitu daitezkeen ekipamenduak direnean (aseguruaren etxebizitza, hirugarrenen establezimenduak edo etxebizitzak, azokak eta erakusketak edota aseguruaren ibilgailua).

- **Kontrata daitezkeen mugak:**

- 600 €.
- 1.500 €.
- 3.000 €.
- 6.000 €.
- Zenbateko aseguratua aukeratzeko askatasuna 6.000 €-tik gorako mugetarako.

6. Ardurapean jarritako ondasunen gaineko erantzukizun zibila



Gure aseguruaren saltokian utzitako hirugarrenen ondasunek izan ditzaketen kalteak estaliko ditugu (adibidez: tindategiak edo arropa konpontzeko dendak).

- **Aukerako kapitala:** 30.000 € edo 60.000 €, 150 €-ko frankiziarekin.

7. Asistentzia PLUS



Konpontzaile-sare bat jarriko dugu gure bezeroen esku beren negozioan kalteren bat izan eta polizaren estaldurekin estaldurarik ez dutenean.

- Iturgintza.
- Igeltserotza.
- Sarrailagintza.
- Galdarak eta berogailuak.
- Pertsianak.
- Elektrizitatea eta etxetresna elektrikoak.

Urtean 2 zerbitzu, 3 erabilera-orduko mugarekin.

Eta errentatzailearen modalitaterako

8. Maizterraren bandalismozko ekintzak



Maizterrak alokatutako lokalean egin izan ditzakeen kalteak (bandalismozko ekintzak) estaliko ditugu kaltea sortzeko helburu hutsarekin, fede gaiztoz egin direnean.

- 3.000 €-rainoko estaldura 150 €-ko frankiziarekin.

9. Errentatzailearen defentsa juridikoa



Gure Aseguruaren defentsa eta erreklamazio judiziala alokairu-kontratuarekin lotutako gatazketan:

Adibidez: Maizterrak ordaindu gabeko errentak erreklamatzeko.